

Berrikuntza Matematikan

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa III
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Aitzol Astigarraga Pagoaga

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan, natur-zientziak eta matematikaren arloko hezkuntza-berrikuntza izango da aztergai: zenbait berrikuntza-proiektu ezagutu, eta halakoak nola diseinatzen eta garatzen diren ikusiko da, garai berrietara egokitu behar duen irakaskuntza-eredua lortu aldera.

Azkenik, berrikuntzaren esparruan teknologia digitalek eta metodologia joera berriek daukaten lekua ere aztertuko da.

3. Konpetentziak

- Natur Zientziak eta Matematikaren irakaskuntzarako proposamen berritzaileak ezagutu eta aplikatzea.
- Natur Zientziak eta Matematikaren unitate didaktikoak kritikoki aztertzea.
- Jarduera eta unitate didaktiko berritzaileak prestatzea, Natur Zientziak eta Matematika ikasteko zailtasunei aurre egiteko.

4. Ikas-emaitzak

- Natur zientziak eta matematikaren alorreko proposamen berritzaileak bilatzen ditu eta haiei buruzko irakurketa kritikoa egiten du.
- Hezkuntzaren arloko berrikuntza-lan propioak diseinatzen ditu.

5. Edukiak

- (1) Hezkuntza-berrikuntzarako sarrera
- (2) Metodologia-joera berriak teknologia digitala

- (3) Natur zientziak eta matematikaren alorreko berrikuntza-egitasmoak
- (4) Berrikuntza egitasmo baten diseinua

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

Arroyo, A. (2023). Teknopedagogia praktikoa. UEU.
<https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/teknopedagogia-praktikoa>

Bisquerra, R. (2009). Metodología de la investigación educativa. La Muralla. (2004)

Imaz Bengoetxea, J.I., (2019). Hezkuntzaren Soziologia. UEU.
<https://www.ueu.eus/argitaletxea/liburuak/hezkuntzaren-soziologia>

Juaristi Larrinaga, P. (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua UPV/EHU, 2003/. addi.ehu.es, doi:10/15493.

Lukas, J. F., & Santiago, K. (2016). Hezkuntza-ebaluazioa. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Mesonero de Miguel, M. (2005). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. Udako Euskal Unibertsitatea.

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)
<https://www.goi-institutua.eus>



: goimailako
: online
: institutua

Navarro Asencio, E., Jimenez Garcia, E., Rappoport Redondo, S., eta Thoilliez, B. (2017).
Fundamentos de la investigación y la innovación educativa. UNIR.

Sangrà, A. (koord.) (2021). Online-irakaskuntza hobetzeko dekalogo. UEU.

Wood, Phil, eta Joan Smith. (2018). Investigar en educación: Conceptos básicos y metodología
para desarrollar proyectos de investigación. Narcea.